



Irakasleentzako sarrera.

Elkartasun-kanpainak aukera aparta eskaintzen digute, nola bizi garen hausnartzen laguntzen diguten leku urrunak eta errealitate desberdinak ezagutzeko. Laster, erkatu egiten ditugu, leku guztietan partekatzeke eta planetari eskaintzeko moduko balio zein elementu onak daudela pentsatu gabe.

Aurtengo leloa “Senegalgo Altxorra” da, eta Afrikako herrialdeak munduari eskaini ahal dion baliozko guztia nabarmentzea du helburu. Paisaiak, historia eta tradizioak alde batera utzita, Senegalgo elementu bereizgarrienetakoa aukeratu dugu jarduera honetarako: “Teranga”.

Senegal ezagutzean, kanpotik iristen denak hausnarketa sakona egiten du partekatzeke eta nonbaitekoak izateko balioari buruz.

“Teranga” hitza abegia adierazteko erabiltzen dute Senegalen. Hain zuzen ere, horixe bera da herrialdearen ezaugarri bereizgarrietakoa, munduaren gaineratikoa ezaguna egiten duena, alegia. Kaleetan eta bideetan ikusi eta arnastu egiten da. Etxea ateak zabalik dago beti, bertako bizilagunak eta auzokideak sartzeko eta irteteko, bertan dauden guztiak gonbidatu gabe inoiz hasten ez den plater bakarra jateko edo sandalien truke harrigarria garatzeko beste batek bere oinetakoak darabiltzalako inor gogaitu gabe. “Norberarena denaren” kontzeptua beste kultura batzuetan baino askoz malguagoa da.

“Teranga” herrialde abegitsu bezain solidarioaren erakusgarri da, eta, bertan, partekatzeke prestasuna erabat txertatuta dago kulturean. Senegalek ondasunak alde batera uzten laguntzen digu, nonbaitekoak izateko, taldea eratzeko eta eskuzabaltasuna bera balio moduan berreskuratzeko. Egunez eguneko xehetasun txikiak partekatzea.

Esparru kolektiboa funtsezko printzipioa dela errespetatzea eta niaren mugetatik harago pentsatzea Senegalgo kulturearen oinarritzko balioa da.

Partekatzea ez da eskupekoa ematea eskalea alde batera uzteko eta urruntzeko. Partekatzea norberaren eremua irekitzea da, beste batek bertan eskuragarri dauden baliabideei onura atera diezaien. Partekatzea baliabide bereko onuradunen kopurua gehitzea da.

Jardueraren garapena: jardueraren garapena era guztietako adinetara egokitu ahal izango da, eta mugak eurak ere malguak izango dira, irakasleek jarduera bera ikasgelako errealitatearen arabera egokitzeke aukera izan dezaten.

Txikienentzat nahiz 13-14 urtekoentzat, jarduerak **familia-ikuspegia** eduki beharko du, eta **jardueraren zati bat etxean bertan egiteko** ere eskatuko zaie.

1. Ikasgelan bertan kanpaina testuingururatzeko eta jarduera azaltzeko Senegalgo altxorren bat ezagutu eta eskaini dezakegun altxorren bat bilatuko dugu.
2. Marinek bidali digun hurrengo gutuna ikasgelan bertan irakurtzeko edo azaltzeko: (erantsitako fitxategian **“Marineren gutuna eta kutxa ebakigarria.pdf”**, gutuna eta kutxa ebakigarria dituzu eskuragarri inprimatzeko moduko formatuan).

Kaixo, abenturako kideok:

Marine dut izena, eta beste kanpaina batzuetatik gogoratuko nauzue, seguruenik.

Ikasturte honetan, Senegalera hurbilduko da. Oso pozik nago nire herrialdeko miragarriak erakusteko abagunea izango dudalako. Zuon laguntza oso garrantzitsua izango da, eskolapioek herrialdean dituzten 5 barnetegietako hezkuntza hobetzeko.

Hori dela eta, nire herrialdeko altxor handienetakoa partekatu nahi dut zuokin.

“Teranga” du izena, eta ez da ez objektua, ez lekua, Senegal bisitatzen duenak berehala ezagutuko duen zerbait baizik. Honako hau da “Teranga”: herrialdera iristen diren guztiak euren etxean egongo balira bezala sentitzea. Hau da, garrantzitsuena ez dira gauzak, nola partekatzen ditugun baizik. Senegalen uste dugunez, mundua leku hobea izan daiteke, hurbilekoei beti laguntzen ikasten badugu eta ingurukoek zer behar duten badakigu. Altxor hori partekatu nahi dut abenturazale guztiokin. Niretzat harrigarria izan zen leku askotan “Teranga” ezagutzen ez dutela konturatzeko. Hori dela eta, nire herrialdean egiten dugun bezala partekatzen irakatsi nahi diot munduari.

Zuok... baduzue antzekorik? Zein da zuon altxorra? Ziur zuon ingurunean ere badaukazuela munduari eskaintzeko moduko altxor esanguratsuren bat.. Partekatu nahi izango duzue?

*Besarkada bat,
Marine*



3. A Horrez gain, kutxa ebakigarria ere emango diegu ikasleei, etxera eraman dezaten. Etxean, familiarean irakurri beharko dute Marineren gutuna, kutxa ebaki eta muntatu ondoren. Amaitzeko, munduari eskaintzeko moduan etxean daukan gauza onen bat bilatu edo identifikatuko du familiak. Paperean idatzi o marraztu edo beste edozein erataria sinbolizatu ahal izango dute, eta, gero, kutxan bertan sartuko dute (ez sartu dirurik).
4. Ikasleek berriz ere kutxak eramango dituzte ikasgelara, eta, oraingoan, altxorra eramango dute bertan.
5. Ikastetxeak eta irakasleek erabaki egin beharko dute kanpainaren gaineratikoari begira kutxa guztiak ikastetxeko lekuren batean elkarrekin jartzen dituzten (oso egokia izango litzateke photocallaren ondoan horretarako gunea bat atontzea), ikasgelan bertan partekatzen dituzten edo beste erabilera bat ematen dieten.

14-15 urtetik aurrerakoentzat ustezko zenbait altxorri buruzko hausnarketak partekatu ditzakete ikasgelan bertan, gure taldeak (ikasleek, adiskideek, familiak...) eskaini dezakeen altxorra zein den jakiteko.

1. Ikasgelan bertan kanpaina testuingururatzeko eta jarduera azaltzeko. Senegalgo altxorren bat ezagutu eta eskaini dezakegun altxorren bat bilatuko dugu.
2. Adinaren arabera egokia izanez gero, Marineren gutuna emango diegu ikasleei, elkarrekin irakurtzeko ("Marineren gutuna eta kutxa ebakigarria.pdf") fitxategian dago eskuragarri). Dena dela, beste baliabide batzuk ere erabiliko ditugu, ezkutuko zenbait altxor bilatzeko: gutunean agertzen den altxorra agerikoa da: "Teranga".
3. Era berean, proposatutako beste 3 baliabide ere erabili ahal izango ditugu, ezkutuko altxorrak bilatzeko. Zer iradokitzen digute? Zenbait aukera daude: ikasleak taldeetan banatzea, aparte lan egiteko eta, gero, partekatze edo elkarrekin lan egitea, ikasle ugari ez badaude...

- Jorge Drexlerren "Movimiento" abestia: (3 min 51 s) Zer altxor eskaintzen digu? ("14 urtetik gorakoentzako jarduerarako eranskinak.pdf") fitxategian, abestiaren bideoa eta letra ikusteko aukera ere baduzu, inprimatu nahi izanez gero).

- Abestiaren letra entzuteko eta ikusteko: https://youtu.be/rGL_JSfpAqU
- Abestiaren letra lortzeko: <https://genius.com/Jorge-drexler-movimiento-lyrics>

- Momondoko "The DNA Journey" kanpaina: (5 min 16 s). 67 lagunen DNARI buruzko ikerketa. Bideoa eskuratzeko: <https://youtu.be/tyaEQEmt5Is>. Ingelesean dago, baina YouTubean badago azpiztituluak aktibatzerik eta hizkuntza aukeratzetik ("14 urtetik gorakoentzako jarduerarako eranskinak.pdf") fitxategian, bideoa ere baduzu eskuragarri, ikasleei eman nahi izanez gero).

- María López Carcellerrek idatzitako "Partekatzekeko espiritua" artikulua hementxe dago eskuragarri: <http://www.diarioinformacion.com/portada-alicante/2010/02/27/espiritu-compartir/985709.html>. Adin batzuei begira artikulua zail samarra izan daitekeenez, "14 urtetik gorakoentzako jarduerarako eranskinak.pdf" fitxategian hiru formatu daude eskuragarri:

- **4A ERANSKINA**: artikulua oso-osorik agertzen da, eta ikasle nagusiagoentzat edo ulermen handiagokoentzat da egokia.
- **4B ERANSKINA**: jatorrizko artikuluaren laburpena agertzen da, paragrafo zailenak kendu zaizkiolako ideiak ahalik eta funtsezkoenak izan daitezten.
- **4C ERANSKINA**: jatorrizko artikuluaren egokitzeapena agertzen da, artikuluko ideien kopurua murriztu delako eta lengoia bera erraztu delako ahalik eta errazten ulertu ahal izateko.

4. **14-15 urtetik aurrerako** ikasleentzat, denen artean taldeak partekatu edo eskaini nahi duen "altxorra" lortzea izango da **helburu nagusia**. Erdietsiz gero, idatzi eta kutxaren batean sartu ahal izango dute txikieneen kutxekin batera. Txikieneen banakako kutxetatik bereizteko, badago ikasle horien kutxa DinA3 formatuan inprimatzerik..